

Santa Ageda bezperako koplak abesteko entseguak iragarri dituzte

Andoaingo Goiburun eta herrigunean eta Urnietako kaleetan tradizioa berrituko dute datorren otsailaren 4an.

“Zorion, etxe ontako denoi, oles egitera gatoz: aterik-ate oitura zarra aurten berritzeko asmoz”, koplak berriro entzungo dira eskualdeko kale eta baserrietan. Datorren otsailaren 4an ohitura zaharra berrituko dute. Andoainen, esaterako, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak

24 urtez jarraian kantu erronda antolatu du. Arratsaldeko 18:00etan irtengo dira Doktor Huitzi kaletik, iluntzera arte kalez kale aritzeko. San Esteban auzoko hainbat kide ere Goiburun aldean ibiliko da, aurreko urteetan bezalaxe.

Urnietako Udalak koroa osatzen du, kalez kale aritzeko.

Bi herrietako taldeek entsegu egunak antolatu dituzte datorren aste hasierarako. Tradizioak, beraz, ez du etenik izango.

[ESKUALDEA, 2. ORRIALDEA]



Goiburun talde polita osatu zuten iaz. Argazkian, kantari eta musikariak Txertotan.

Denboraldi berria profesional mailan



Mikel Iturria urnietarrak Euskadi Basque Country Murias taldearekin denboraldi berriari ekingo dio.

[KIROLA, 11. ORRIALDEA]

Baserri bideen konponketa lanak



Urrilondo eta Mantxoenea aldeko paraje ederretan bidea berritu dute.

Azken asteetan Andoaingo Udalak herriguneko eta landa eremuko baserri eta etxeetara doazen bideak partzialki edota bere osotasunean konpontzeari ekin dio. Orain arte egindako jarduerak, zehazki, bederatziz izan dira Andoaingo Leitizaran, Sorabilla, Buruntza edota Leizotz aldean.

2017ko Udal aurrekontu proposamenean, zeina ostegun honetako plenoan eztabaidatu eta onartuko den, ba-

serri bideetarako partida berria txertatu dute. Iaz hasitako lanak, beraz, jarraipena izango du.

Horrekin batera, duela hainbat aste Andoaingo Udaleko ingurumen sailak baserri bide bakoitzaren hasieran baserri bakoitzera iristeko tamaina handiko panelak ipini ditu. Baserriaren izenarekin batera, hara iristeko bidea islatzen da mapa-seinale horietan.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Korrika batzordeak martxan



Apirilaren 4an igaroko da euskararen aldeko lasterketa ezaguna eta dagoeneko antolaketara batzordeak martxan jartzen ari dira. Andoainen osatu da eta Urnietan, ostiral honetan.

[ESKUALDEA, 8. ORRIALDEA]



EGAPE IKASTOLA
BIZITZARAKO HEZKUNTZA



MATRIKULA ZABALIK!!

URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era

BILERAK 2 URTEkoentzat

Urtarrilak 31, Etxeberri Plaza, 17:00 h.

BILERAK DBHkoentzat

Urtarrilak 30, Azkorte, 17:00 h.



ELKARRIZKETA

Santa Ageda bezperan kantuan aritzeko entseguak

Eguberrien eta inauterien artean, Santa Ageda bezperan kantuan aritzeko usadioa berrituko dute Andoainen eta Urnietan. Kalez kale gutxienez bi talde ibiliko dira. Tradizio handiena dutenak Ma-

nuel Larramendi Bazkunarena da Andoainen, eta Urnietan aldiz Udalak antolatzen duena. Datorren astearen hasierarako entseguak iragarri dituzte. Bietan ere parte hartzea irekia da.



Andoaingo kantu erronda 1998. urtean.

Andoain

Larramendi Bazkuna

“Azken hogeita lau urteetan bezala, aurtan ere Manuel Larramendi Kultur Bazkunak otsailaren 4an Santa Ageda bezperako erronda antolatuko du, herriko beste elkarte, ikastetxe eta talderen partaidezarekin. Aurtengo berezitasuna zera da: otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izateaz gain larunbata dela, baina horrek ez du eragotziko urtero-urtero koplak kantatzen den ehun lagun inguru horrek bere erronda egitea, arratsaldeko seietan hasita (18:00). Irteera Larramendi Bazkunaren Dr. Huizi kaleko egoitzaren parean izango da, behin bertako mastan Santa Ageda eguna Euskal Herriko eguna dela gogorarazten duen ikurriña lau haizeetara ipini ondoren. Ikurriña mastara igotzeaz, aurtan, Ramon Beraza

Andoaingo erronda, entseguak: Urtarrilak 30, otsailak 1. 20:00. Ambrosia Olabide.

arduratuko da, hain zuzen ere azken 24 urteetan Santa Ageda bezperako abesbatza zuzentzeaz hutsik egin gabe arduratu dena. Jarraian, herriko kaleetan barrena ibiliko dira Santa Ageda bezperako koplak kantari, baita neguko otso beltzarekin ere. Zortzi eta erdiak inguruan eman ohi diote amaiera errondari.

Santa Ageda bezpera iritsi aurreko egunetan errondan parte hartuko duten askok koplak eta kantak prestatzeko aukera izango dute, Ramon Beraza musikariaren zuzendaritzapean. Aurtan, aho-tsak, kantak eta soinuak prestatzeko bi



Urnietan iaz kantuan irten zen taldeko argazkia.

saio egingo dituzte: urtarrilaren 30ean izango da lehenengoa, astelehenarekin, 20:00etan Pio Baroja kalean dagoen Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian. Bigarrena eta azkena, toki berean, otsailaren 1ean izango da, asterazkenarekin, 20:00etan ere.

Larramendi Bazkuntik adierazi dute edozein herritarrek parte har dezakeela errondan, tradizioak agintzen duen bezala jantzea eta kantatzea dela jartzen diren bi baldintza bakarrak, eta ahal dela –hori bai– entseguetara joatea.

Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute Ontza elkarteetan, aldeztatik izena ematen dutenek. Izena emateko azken eguna otsailaren 1ean izango da, iluntzean egingo den entseguan. Egunean bertan ezin da izenik eman afaritara joateko”.

Urnietako erronda, entseguak: Urtarrilak 31, otsailak 2. 20:00-21:00. Lekaio.

Urnietan

Udalak antolatutako ekimena

Urnietako Udalak herrian zehar etxe etxe eta kalez kale kantari ateratzeko taldea osatu ohi du. Ez da aldeztatik izena eman beharrik. Entseguak egingo dituzte Lekaion urtarrilaren 31n eta otsailaren 2an, 20:00etik aurrera. Azkena otsailaren 4an bertan 16:00etik aurrera. Ondoren, 17:00ak aldera, Errondari hasiera emango diote San Juan plazatik abiatuta. Udalak parte hartzaile guztiei baserritarrez jantzita joatea eskatu die.

Txotx'17

**Euskal kantu liburuxka
Aiurriekin batera jasoko dute
Aiurriko harpidedunek, laster!!**

2017ko egutegi gehiago nahi? deitu: 943 300 732

Ehun mila euroko diru partida inbertsioetarako

Proposamenak egiteko aukera zabalik dago



Urnietako Udal ordezkariak lbatuz enpresako ordezkariekin batera joan zen urtarrilaren 18an egin zuten aurkezpen ekitaldian.

Urnietako Udalak herritarren proposamenak entzun nahi ditu, 2017ko aurrekontuko 100.000 euro zertan gastatu erabakitzeko. Horretarako, parte hartze prozesua jarri du martxan eta herritarrek proposamenak emateko aukera izango dute datorren otsailaren 12ra arte.

Herritarrek aukera izango dute urtean zehar beraien auzo eta kaleetarako garatu nahiko lituzketen proiektuak eta ideiak proposatzeko. Nahi adina proposamen egin ditzakete aste hauetan zehar. "Herritarrek proposatutako proiektu horiek inbertsioen atalera pasatzea da helburua", azaldu zuen Mikel Pagola alkateak parte hartze prozesuaren aurkezpenean.

Proposamenak egiteko, urnietarren etxetara bidalitako eskuorria bete beharko dute eta herriko puntu ezberdinetan dauden kutxatan utzi beharko dute: Bertan, Lekaio, Kiroldegia, Jubilatuen Egoitza, Anbulatorioa, Egape ikastola, Azkorte, Presentación de Maria eta Salesiarrak ikastetxeetan, hain zuzen. Horrez gain, herrian zehar jarrita dauden buzoietan edota Udalaren webguneko formulario digitalaren bidez ere egin dezakete. Urnietan eroldaturiko 16 urtetik gorako edozeinek du proposamenak aurkezteko aukera.

Behin eskaerak eginda, Udaleko teknikariek proposamenen

"Herritarrek nahi dituzten proposamenak egiteko aukera izango dute"
Mikel Pagola alkatea

bideragarritasuna teknikoki eta ekonomikoki aztertuko dute, gauzatuko diren proiektuak lehenesteko. Parte hartze prozesuaren azken pauso gisa, partaidetza-prozesuaren emaitzak eta hartutako erabakiak jakinaraziko dizkiete herritarrei.

KONTUAN HARTU BEHARREKOA
Pagola alkateak ohartarazi du dagoeneko inbertsioen zerrendan sartuta dauden proiektuak ez dituztela aintzat hartuko,

INBERTSIO PLANA

2017ko aurrekontuan dagoeneko txertatuta dauden inbertsioak honako hauek dira:

- Igogailua Urraka auzoan.
- Aparkalekuak Txoritagainen.
- Eskailera Saroberen atzeko aldean.
- Argiteria aldatzea.
- Mugikortasun-arloko ekintza Zaldundegin.
- Industrieguneen errepidea konponetzea.
- Ergoieneko industriadeko saneamendua konpontzea.
- Urnietako mendi ibilbideetako seinaleztapena.

eta beraz, ez errepikatzen, horiek 2017ko aurrekontuan dagoeneko txertatuta daudelako.

KONTUAN HARTU BEHARREKOA EZAUGARRAK

Hainbat baldintza bete beharko dira proposamenak balekoak izateko:

1. Udal-eskumenekoak diren proposamenak, jarduerarako hauei lotuta: obrak, hirigintza eta mantentze-lanak.
2. Ekonomia edo/eta teknika aldetik bideragarriak diren proposamenak. Gauzatzeko 20.000€ baino gehiagoko kosturik ez dutenak.
3. Iraunkortasun ekonomikoa eta finantzarioa bermatzen dituzten proposamenak.
4. Urnietan bizi diren herritar guztien interesa norberaren interesen gainetik jartzen duten proposamenak.
5. Udalerriko auzoen arteko oreka bermatzen duten proposamenak.
6. Udal-eskumenekoak diren proposamenak.

INFORMAZIO KARPAK

Zalantza guztiak argitzeko eta proposamenak helarazteko informazio karpak jarriko dituzte datorren astean:

Otsailak 3, ostirala:

10:00-14:30 Etxeberri plaza.
17:00-20:00 Guria ondoan.

Otsailak 4, larunbata:

10:00-14:30 San Juan plaza.
17:00-20:00 Kiroldegia.

On Bosko jaia hilaren 31n

Gaztedi Astea ospatzen ari dira egun hauetan Salesiar ikastetxean, maila handiko gonbidatuen parte hartzearekin: Richard Oribe, Jokin Altona, Aritz Arano urnietarra, etab.

Urtarrilaren 31n goizean goizetik On Bosko jaiaren ospakizunari ekingo diote.

Eta datorren otsailaren 5ean On Bosko krosa antolatuko dute, ikastetxean hasiz eta amaituz.

Urnietak Bizirik, oharra

Datorren otsailaren 1ean Urnietak Bizirik plataformak loteria kobratzeko aukera eskainiko die boletoak erosi

zizkietenei plataformako ki-deak Egur tabernan izango dira 18:00etatik 19:30era.

Otsailak 1, asteazkena.

Txartel irabazlearen bila

Hernaniko Arraun elkartetik adierazi dutenez, "saski baten zozketa egin dugu Gabonetan, eta saritua oraindik ez da agertu. Urnietakoa den gure klubeko kide batek saldu du txartel saritua, eta horregatik uste dugu agian saritua Urnietakoa izan daitekeela". Gabonetako zozketan ehunka txartel saldu zituzten, eta zozketa egin ostean, sariduna ez da azaldu. El Niño-ko loterian, zenbaki irabazlearen azken lau zifre-

kin bat egin duena da irabazlea, hau da, 8354 zenbakia. "Txartel bakoitzak bi zenbaki ditu, beraz, ongi begiratu! Bi sari eder jasoko ditu irabazleak: Lur Lan berritar elkarteak prestatutako saskia, 600 euroko baliokoa, eta 250 euroko txekoa, Hernani Bidaia agentzian erabiltzeko".

Saria jaso ahal izateko, hernani.arrauna@gmail.com posta elektronikora idatzi beharko da.

Etxekoen eta adiskideen omenalditxoa Hiazintori



Senideak eta adiskideak Muliskogainean joan zen asteburuan.

Aurreko igande goizean Hiazintori Fernandezaren etxekoek eta lagunek omenalditxoa egin zioten hain maitea zuen Muliskogainean. Taldean Besabitik abiatu ziren, aztarnategi megalitikora iritsi

ziren arte. Bertan "Txoria txori" eta "Xalbadoren herriotzean" kantuak abestu zituzten. Omenaldi ekitaldira hurbildu zirenek, Hiazintoren izaera eta ibilbidea hipzide izan zuten joan-etorrian.





TERE SANTANA • ANDOAIN

Podemos Andoain Ahal Dugu

“Vistalegren izango gara eta oso proposamen interesgarriak eramango ditugu hara”

Datorren urtarrilaren 30ean urte bat beteko da **Podemos Andoain Ahal Dugu** zirkulua aurkeztu genuenetik. Urte osoan zehar ilusio bereziarekin aritu gara udalerrian lanean, egitasmoari forma eman nahian. Bilerak eginez moldatu egin ditugu gure ideiak batzuren eta besteen ekarpenekin. Udal batzorderen batera agertu izan gara eta herriko giza mugimenduetan agerpena izaten ahalegintzen ari gara, denok pairatzen ditugun arazoak hobeto ulertze aldera.

Beste alde batetik, mahai informatiboak antolatu ditugu gure ordezkari politikoei beharrezko diren kontuak herritarren aurrean eman ditzaten, oinarriko errenta unibertsalari buruzko mahai-ingurua ere antolatu genuen eta bertara aditu diren lehen mailako solaskideak ekarri genituen, etab.

Baina, zintzo jokatzu, urtea zaila izan da, saltoka bezala ibili behar izan baitugu bi hauteskunde kanpaina izan ditugulako: Ekainaren 26ko Hauteskunde Orokorrak eta irailaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Gure alderdia berria denez eta militantzia aktiboa eskasa denez, gutxi batzuk biderkatu egin behar izan dugu beste askoren lana egiteko. Gure lema nagusia egi bilakatu eta ahal izan dugu.

Gure balantzea positiboa da, nahiz eta herrikide gehiagoren inplikazioa izatea nahiko genukeen, bereziki ahalik eta jende gehiagoren benetako beharrak zeintzuk diren jakin ahal izateko. Etorkizuna idazteke dago, esperientziarik ez dugu eta bidea egin ez aurrera egiten ari gara.

Zangotrabatuz eta bultzakadak

jasoz hilabeteak daramatzagu barne prozesuan murgilduta, Vistalegre II delakoan amaituko dena. Bertan izango gara eta oso proposamen interesgarriak eramango ditugu hara.

Vistalegre I prozesuan hauteskunde borrokarako makina izateko antolatu ginen. Orain alderdia demokratizatzea eta deszentralizatzea dagokigu.

Euskadi mailan gure ahotsari tartea ematea garrantzitsua iruditzen zitzaigun, eta baita eztabaidari hasiera behetik ematea ere. Hori dela eta EAE mailako asanblada egin dugu eta bertatik 200 proposamen atera dira. 200 pertsona aritu gara aurrez aurre eztabaidatzen eta denera 1300 lagunek gogoko zituzten proposamenen aldeko botoa eman dute. Eztabaida horren emaitza hautagaitza ezberdin guztiei helarazi diegu eta euren programatan bertatuko dutela espero dugu.

Bide demokratikoen bitartez egiten den eztabaida sana eta aberasgarria da. Proposamenak eztabaidatzea da garrantzitsua, eta ez hainbeste pertsonen inguruan. Ea Vistalegre IItik denak norabide berean arraun eginez irteten garen, gehiengoak aukeratu duen egitasmoari babesa emanez. Podemosen ez dago inor sobera, eta denak garrantzitsuak gara.

Vistalegre II prozesua amaitzen denean, Andoaingo zirkulua bere lana areagotuko du. Berrikuntzaren bat eskaintzeko moduan izango gara.

Aurrekontua eztabaidatzeko batzarra ostegun honetan

2017ko Udal aurrekontua onartzeko akordio zabala



Jorge Mourinho (Irabazi), Olga Hernandez (Ganemos) eta Jon Zulueta (EH Bildu) Udal ordezkariak.

EH Bildu, Ganemos, Irabazi eta Alvaro Gonzalez zinegotzi ez atxikia (PSE-EEko zinegotzi izateari utzi eta bere kabuz ari da lanean) akordio batera iritsi dira 2017ko Udal aurrekontuei onarpena emateko. Aurreko astean EH Bildu eta EAJ-PNVk lortutako akordioarekin, beraz, aurrekontua gehiengo zabalarekin onartuko da. Okerrik ez, 17 zinegotzietatik 13 alde agertuko dira. PSE-EE izango da, beraz, adostasun eta akordioetatik kanpo geratu dena.

Astearte goizean ezkerreko alderdiek sinatutako oharrean

“Arlo sozialak aurrekontuetan duen islada handia azpimarratu nahi dugu”

aurrekontuen izaera soziala nabarmendu zuten: “2016. urtean zehar landu diren harreman politikoen ondorioz, Andoainen aurrera eraman beharreko lehentasunak adosten joan gara, eta neurri handi batean Ganemos eta Irabazik eginiko proposamenak jasotzen dira 2017ko aurrekontu proposamenen. Arlo sozialak aurre-

kontuetan duen islada handia azpimarratu nahi dugu”.

Akordioa etorkizunera begira jarrita dago, hainbat eztabaidagai irekiko dituztela iragarri baitute: “Aurrekontuen gaineko akordioaz gain, alderdion arteko adostasuna harago doa eta 2017 urtean zehar eztabaida ezberdinak jarriko ditugu martxan. Hala nola, Udal zerbitzuen publikazioa lehenetsi eta planifikatzea, gardenetasunean eta parte-hartze eremuetan sakontzea eta fiskalitateari buruzko akordioak bilatzea”.

IPAR HAIZEA PLATAFORMAKO KIDEON ERANTZUNA POSTONTZIA

EAJko kideek 2017ko urtarrilaren 13ko Aiurri hamaboskarian argitaratutako elkarrizketan errausketari buruz oro har, eta Ipar Haizeako kideei buruz, adierazitakoari erantzunez:

“Errausketa teknologia zaharkitu bat dela eta poliki, baina, seguru, desagertu egin behar duela” dio Piotr Barczak, Europako Ingurumen Bulegoko Hondakin Politikaren (EIBHPA) arduradunak, ekonomian eta ingurumenean onurak baino gehiago kalteak ekartzen dituelako.

Birziklatzeari lehentasuna emateak onura handia dakar. Izan ere, aukera ematen du materialak zirkulazioan jarraitzeko eta ez desagertzeko. Modu horretan, material berri gutxiago beharko da, erabilitakoak ez direlako ordezkatu behar izango.

EIBHPAren iritzi honakinen kudeaketaren irtenbidea ez dago hain lotuta teknologiari, baizik eta herritarren tradi-

zio eta ohituretan arras sustraituta dagoen portaerari.

Horrenbestez, hondakin gutxien sortzen duten herriek eredu liraterke besteentzat eta bere esfortzuaren sari bezala konpentsazioa jaso beharko lukete. Baina zuek justu kontrakoa defendatzen duzue. Zergatik?

Gipuzkoako OEIT mediku taldeak datu zientifiko ugari plazaratu ditu ikerketa zientifiko ugari kontuan hartuta. Errausketak osasunean dituen eraginak interneten ikus daitezke sakonago azalduta.

Fernando Palacios CSICeko ikertzaileak, asko daki errausketaren ondorioz sortzen diren gasei buruz. Berak dio, nahiz eta azken puntakoa izan errauskailua, berdin-berdin ateratzen direla gas kutsakor horiek eta, gainera, sartzen den zaborraren zati handi bat, %30a gutxigora behera, errauts eta zepa oso toxiko bezala (ez da inerte zuek diuzuen bezala) ateratzen dela bertatik, eta hau kostu handia duten hondakindegiz berezietan jaso behar dela.

Carlos III Osasun Institutuko ikertzaile den Alfonso Del Val medikuak tximienatik isuritako gasak ikertu ditu eta, hain zuzen ere, partikulatutako materia edo mikropartikulak. Gas isuriaren eta hondakin toxikoen arteko lotura agerian geratu da beraiek egindako ikerketetan, baita hauek gizakiaren osasunean duten eragin kaltegarria ere. Errauskailuek sortutako partikula txikiak 0,1 umkoak dira. Ez dago filtrorik horiek atmosferan isurtzea ekidindu dutenik. Arnas bideko babes-sistema ere ez da gai osasunarentzat oso kaltegarri diren partikula ultrafin hauek geldiarazteko eta birika albeoloetara eta odol-bideetara zabaltzen direla frogatu dute.

Gure iritzi, egungo ezagutzak aintzat hartuta eta osasun publikoari dagokien erabaki guztien ardatz beharko lukeen zuhurtzia printzipioan oinarrituta, hondakin kudeaketarako beste metodo batzuk ikertu beharko liraterke. Ez gaudela gaia politizatzearen alde, zientzialariek egindako ikerketetan oinarritzen ditugu gure proposamenak, EAJko

kideek dioten bezala “objektibotasunaren aitzakian manipulazio edo desinformazioa egiteko” batere asmorik gabe. Interneten dituzue eskura hemen aipatu ditugun ikerketak eta egileen curriculumak.

Ipar Haizea plataformako kideei “holiganismo politikoa” egiteaz salatzen gaituzte EAJko kideek aipatu elkarrizketan. Onartezina iritzen diogu, guri buruz aritzeko deitura hori erabiltzea. Plataforma honen helburua, noiznahi eta nonnahi, hausnarketa eta zentzuzko eztabaida bultzatzea izan da. Beraz, eta herriko giroa gehiago zapuztu ez dadin, zuzenketa publiko bat eskatzen diogu EAJ alderdiari.

Oso kezkatuta jarraitzen dugu, uste baitugu gaia gizarteratu egin behar dela eta guztion artean irtenbide bat adostu. Ez legoke gaizki, horrelako tonu erasokorra erabili beharrean, gure ikuspuntua adierazteko aukera izan dezagun hedabideetan egun besteek duzuen eta guri ukatzen ari zaigun lekua izateko aukera defendatzea.

Urtarrilaren 30ean hasita, emanaldiak Basteron egunero

Piano jaialdiaren atariko kontzertuak



Mikel Urdangarin Castro bibolin jolea, Myriam Ulanga piano jolea eta Carlos Rubio Amondarain perkusio-jolea.

Aurtengo Piano Jaialdiari datoren astelehenean emango diote hasiera emanaldi bereziekin. Urtarrilaren 31n, Andoaingo bi musikariren txanda iritsiko da. Mikel Urdangarin Castro biolin-jolea eta Carlos Rubio Amondarain perkusio-jolea zuzenean arituko dira Basteroko ekitaldi aretoan. Nork bere emanaldia eskainiko du eta Myriam Ulanga piano-jolea izango dute ondoan.

Carlos Rubiok bi musika tresna joko ditu, marimba eta vibrafonoa, eta honako abestiez osatuko du emanaldia: "Mexican Dances I eta II" (G.Stout) marimbarekin, eta, "Piazonere" (A. Gerassimez) vibrafonoarekin. Mikel Urdangarin, bere aldetik, "Sonata La minorrean" (Cesar Franck) eta "Liebesleid" (Kreisler) piezak eskainiko ditu.

Bi pieza joko ditu bakoitzak hortaz, eta emanaldiak denera hiru ordu laurdeneko iraupena izango du.

Aukera ezin hobea lehen

pausoak Andoaingo Udal musika eskolan eman zituzten bi ikasleen artez gozatzeko. Urteotan ibilbide emankorra izan dute. Kalitate handiko kontzertua izango da, beraz.

Rubio gaur egun Musikene goi mailako kontserbatorioan perkusio ikasketak burutzen ari da. Musika latinoa jotzen duen El sindicato taldeko perkusio-jolea da, bide batez. Rubiok lehenbiziko aldia du jaioterrian jotzen duela, eta berarentzat aski berezia izango da urtarrilaren 31ko kontzertua.

Urdangarinnek eskarmentu handiagoa du zuzeneko emanaldiei dagokionez. Gaur egun irakasle lanetan aritzen da Debako eta Azkoitiko Udal musika eskoletan.

Biak nahikoa ohituta daude mota ezberdinetako kontzertuetan parte hartzera. Zer esanik ez Myriam Ulanga. Irigarri duten kontzertu horretarako bi musikari gazteen laguntzaile arituko da.

IMANOL IRIBARREN,

Atarikoak

Andoain, Bastero

Piano Jaialdiaren atarikoak:

Urtarrilak 30, astelehena:

Oroith abesbatza
20:00 Ekitaldi aretoa.

Urtarrilak 31, asteartea:

Mikel Urdangarin Castro biolin-jolea eta Carlos Rubio Amondarain perkusio-jolea.
19:00 Ekitaldi aretoa.

Otsailak 1, asteazkena:

Jazz estiloko inprobisazioak. Imanol Iribarren Garcia eta beste hainbat musikari.
19:00 Ekitaldi aretoa.

Otsailak 2, osteguna:

Andoaingo musika eskolako piano irakasleen ikasleen kontzertua.
19:00 Ekitaldi aretoa.

Otsailak 3, ostirala:

Kontzertu didaktikoa.
17:30 Bastero auditorioa.

Otsailak 4 eta 5:

Euskal Herri osoko piano jotzaileen bilkura.

OTSAILAREN 1EAN

Martin Holland (bateria), Jesus Garcia (kontrabaxua), David Cid (pianoa), Asier Ardaiz (tronpeta) eta Jon Zufiaurre (saxofoi tenorra) laguntzaile izango ditu Imanol Iribarrenek datorren asteazkenean eskainiko duen jazz kutsuko emanaldian.



Hogar Extremeño elkarteak zuzendaritza berri du



Hogar Extremeño-El Miajon de los Castuos elkarteak urteko batzarra egin zuen joan zen asteburuan. Hartu ziren erabakien artean, azpimarratzekoa da bazkide izateko ordaindu beharrekoa, 600 eurotik 300 eurora jaitsi izana. Bazkide izateko interesatuek 943 300 796 telefonora dei dezakete. Zuzendaritza berria aurkeztu zen batzarrean, Ignacio Gomez izango delarik lehendakaria. Honako bazkideek osatuko dute aurtengo zuzendaritza, zutik: Xabier

Bazkide izateko ipini beharreko diru kopurua erdira jaitsi dute, 300 eurotara

Godoy, Marinos Flores, Leire Gomez, David Gibello eta Ramon Dominguez. Eserita: Jose Tena, Emilio Vigo, Teodoro Rodriguez, Rogelio da Silva, Ignacio Gomez eta Julian Gomez. Argazkian, Laura Valor eta Robert Arrogan te falta da.

Jubilatuen kafetegia kudeatzeko deialdi berria



Andoaingo Udalaren Gizarte Zerbitzuetako lansailak Ambrosia Olabide eraikinean dagoen jubilatuen egoitzako taberna-kafetegia zerbitzuaren esleipenerako epea ireki duela jakinarazi du. Interesatuta daudenek baldintza administratiboen agirian jasotako

baldintzak honako tokietan eskura izango dituzte: Gizarte Zerbitzuetako lansailan, Ataria arreta informazio bulegoan edota andoain.eus webgunean, Kontratatzailearen profila atalean. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 8an amaituko da.

Eskulan tailerra

Bidaidek prest du hurrengo jarduera: Eskulan tailerra. Artelanetarako duten trebezia erakusteko eta eskuetan lan politak egiteko aukera

izango dute guraso eta seme-alabek otsailaren 17an, 17:00etatik aurrera, Karrikako ludotekan.

943 591 704 | andoain@aek.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

BASERRIA

Eraberritze lanak baserri bideetan

Andoainen hainbat baserri daude sakabanatuta, auzune ezberdinetan. Joan-etorrietarako bideen egoera txukuna garrantzia handikoa da, bereziki bertan bizi direnentzat. Azken hilabeteotan Udalak txu-

kuntze lanak egin ditu bederatzita baserri bideetan, etorkizun hurbi-lean langintza horretan sakontzeko asmoarekin. Izan ere, 2017ko Udal aurrekontuetan partida berezi bat gorde dute horretarako.



Sorabilla aldean, Goikoetxeberri baserritik gora abiatuta, hiru kilometrotik gorako luzera duen bidea Garate eta Pagarte (irudian) baserrietan amaitzen da. Konponketak egin dituzte hormigoizko bidean zehar.



Leizotz aldean, Aranaztegitik mendian gora abiatzen dena, Penadi aldera eta Lekunategi untxitegira doan bidean arrisku handiko bihurgunea asfaltatu dute. Argazkian, Penadi baserria.



Buruntza auzoan Aizkibel harrobiko sarreratik abiatzen den malda pikoa Derrepente baserriara doa. Bidean zehar hainbat zati erantsi edota eraberritu dituzte.



Bazkardo baserritik Garate aldera doan bidegurutzearino eta handik Sorabilla-Errotgaineraino doan bidea asfaltatu dute. Mendiluze baserriara doan bide zatia hurrengo egunetan asfaltatuko dute.



Leizotz aldean Urrillondo (irudian), Mantxonea eta Beneziara joateko bihurgunearen zorua konpondu dute.



Buruntzako Zalbide (irudian) eta Agirre baserrietara doan bidearen hainbat zati konpondu dituzte.

BASERRIA



Buruntza auzunean Eguarastxiki, Eguarasberri eta Eguarasandi baserrietara Krafft paretik abiatzen den bidearen zati handi bat asfaltatu dute.



Txistoki pasealekutik Sorabillara doan bidean, Bordaberri aldera doan errepedearen zati bat asfaltatu dute.



Idoia aldera iristeko pistaren gainean porlana bota dute zatirik arriskutsuean. Ehun metro inguruko luzera asfaltatzen ari dira.

Auzune ezberdinetan kokatzen diren baserri bideen hasieran informazio panelak ipini dituzte

Andoaingo auzune ezberdinetako baserrietara iristeko informazio panelak ipini dituzte



Andoain-Urnieta bidean, Upategi baserriaren ondoan, Buruntza auzuneko hainbat baserrietara doan bidea seinaleztatu dute.



Sorabillan, Erretoretxe parean, auzuneko bide ezberdinak panelean ipini dituzte bidean topa daitezkeen baserrien izenekin. Txistoki pasealekuan, Itsas Mendi enpresaren ondoan, beste panel bat ipini dute.

SEINALIZAZIO EZBERDINA ANTZEKO BIDEETAN



Oinezkoak, txirrindulariak eta ibilgailuak maiz igarotzen diren bi bide hauetan seinalizazioa desberdina da, eta hori ulertzea kostatzen da.

Andoaingo Sorabillatik Adunara doan bidean, Inquitex lantegiaren parean, errepedea gurutzatu behar denean zebra-bidea jarri dute.



Aldiz, Aranaztegi industrigunean dagoen Andoain-Urnieta arteko oinezkoen bidean, errepedea gurutzatu behar denean ez dago zebra-biderik.

Oinezkoen bidea eta ibilgailuen errepedea gurutzatzen diren tokian ibiltzen den jende kopurua ikusita, gaur egungo egoera arriskutsua da.

EUSKARA

Korrika prestatzen hasteko batzordeak martxan dira

Urrietan, ostiral honetan, eguerdiko 12:00etan hasita Korrika batzordea antolatu dute. Besteak beste, Korrikaren etorrera eta Korrika txikia antolatzen hasi nahiko lukete.

Andoainen joan zen astelehenean egin zuten batzordearen lehen bilera, eta dagoeneko Korrika 20ren antolaketa lanei hasiera eman diete.

Aste honetan bertan eratu da **Andoaingo Korrika batzordea**, bertako euskara, gizarte, irakaskuntza eta kultur mailako eragileek osatuta. Irekia da batzordea, eta edonork har dezake parte; alde horretatik, bertan parte hartzeko edo ideiarekin bat proposatzeko gonbidapena luzatu zuen batzorde eratu berriak. Gonbidapena herriko elkarteei ere luzatu zieten, Korrika herrian barrena igarotzen denetan kilometro bat har dezaten.

AEK euskaltegian egin zuten lehen bilkuran, batzordeak Korrika girotzeko egingarri izan daitezkeen zenbait ekimen eta ekitaldi landu zuen. Hurrengo bilera datorren otsailaren 20an izango da. AEKren egoitzan bertan, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Dagoeneko lehen ekitaldia zehaztu da Korrika kulturalaren baitan. "Erradikala gara" izenburua duen bertsoaren inguruko ikuskizuna da, Beatriz Egizabal eta Ane Labakaren eskutik dator. Basteron eskainiko dute martxoaren 11n, larunbatarekin.

Gogora dezagun Korrika martxoaren 30ean Otxandiotik abiatu eta Iruñean apirilaren 9an amaituko dela. Andoainera, apirilaren 4an goizeko 09:59etan helduko da Tolosatik, eta Urnietako bidea hartuz jarraituko du.

Korrika materiala salgai ipini dute egunotan. Hiru eratara eros liteke: AEKk Extremadura kalean daukan egoitzan bertan, Donostian Bretxa merkataritza-gunearen azpiko solairuan ireki duten dendan, eta Korrika.eus internet atarian.

URNIETAKO BATZORDEAREN OSAKETA

12:00 Lekaio.

Urtarrilak 27, ostirala.



Korrika batzordeak osatzen hasi dira. Andoaindarrak astelehenean bildu ziren, urnietarrak ostiral honetan.



2015eko Korrika Andoain eta Urnieta igaro ostean, Hernaniko bidean zihola.



Urtemuga-jaia

1980ko azaroaren 29an lehenengo Korrika abiatu zen; 2017ko martxoaren 30ean, berri, hogeigarrena abiatuko da. Hori dela eta, aurtur 'Korrikaren urtemuga-jaia' ospatzea erabaki dute. Ospakizuna datorren otsailaren 11n Irun-Hendaia artean dagoen Ficoba erakustazokan izango da. Bazkariak gain, sorpresaz beteriko arratsaldea iragarri dute. Jaia eguerdiko 13:00ean hasiko da, eta 19:30ak aldera amaitu. Izen-ematea urtarrilaren 31n amaituko da. Komeni da garaiz ibiltzea, "antolakuntzatik erabaki dezakegu epea aurreratzea, nahi adina leku ez badago".

Info: ekitaldiak@korrika.eus

Prezioa: 20 euro.

Korrika materiala

Hiru aukera daude materiala eskuratzeko: bata, euskaltegietan; bestea, herrialdeetako dendetan; eta azkena, Korrikaren on-line dendan.

Korrika.eus dendan dagoeneko kamisetak eta giltzatak erosteko aukera dago.

Korrika laguntzailea

"12 euroren truke aurtengo Korrikaren laguntzailearen pina jasoko duzu, urtarrietik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak izatea ahalbidetuko dizun txartela eta komertzioen zerrenda dakarren katalogoa. Eta, batik bat, Korrika laguntzailea izango zara".

Korrika.eus gunean laguntzaile izateko aukera zabalik dago.



Gipuzkoako ekonomia, eskualdez eskualde

Andoaingo solasaldia
[2016-12-20] ikusgai:
Ekonomiagurean.eus

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aiurri



EUSKARA



FICOBA

Erakustazokan IRUN GIPUZKOA

Otsailaren 11n

JAIA EGUERDIKO 13:00ean HASIKO DA, eta 19:30ak ALDERA BUKATUKO.
SARRERA 20 €-koa izango da.

IZENA EMATEKO: www.korrika.eus

ETOR ZAITEZ, MUNDIALA IZANGO DA ETA!

BATZUK ^{20. korrika}
2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRURERA

Unai Agirre, Sagardogileen Elkarteko kidea

“Sektoreak horrelako zerbait behar zuen”



Unai Agirre, Gipuzkoako Sagardogile elkartekoa.

Euskal Sagardoa jatorri izenaren aurkezpen ekitaldian, Unai Agirrek datu zehatz bat eman zuen: datozen hamabost urteetan 250 eta 300 hektarea artean handitu beharko da sagasti kopurua, izendapenaren baitan dauden sagardotegi guztiek bertako sagarrarekin ekoiztu ahal izateko %100ean. “Mugimendu handiak ari dira ematen orain. Dirulaguntzak aktibatu egin dira eta jendea sagastiak jartzen hasi da. Ekimen honek lehen sektorea jarri du martxan”.

Euskal Sagardoari esker, jatorri izendapenen multzoan sartu da sagardogintza sektorea...

Unai Agirre. Aspalditik ari ginen horren atzetik. Eta garrantzia handia du urrats horrek. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagardo zein sagar elkarte guztiek onartzea lortu dugulako. Horrek ez du esan nahi sagardotegi guztiak sartu direnik. Baina elkarte guztiak bai, batu egin dira. Elkarlanean aurkeztu dugu eta hori ere azpimarratzekoa dela uste dut, sektoreak horrelako zerbait behar zuelako.

Jatorri izendapenak eragin zuzena izango du sagardoaren ekoizpenean, ezta?

Konpromiso sendo bat hartu dute izendapenean sartu diren sagardotegiek. Urte batzuren buruan, %100ean jatorri izendapenaren baitan ekoizteko konpromisoa hartu dute. Orain portzentaje batekin has daitezke, kontrola kupelka doalako. Baina 10-15 urteko epean, sagardo guztia jatorri izendapenaren arabera ekoiztera konprometitu dira.

Urrutiko epea dirudi, baina sagastiak sagarra produzitzen hasteko ia 10 urteko epea behar du.

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa. Hori izango da Euskal Sagardoaren etiketa daramanak bete beharko duen baldintzeta-ko bat. Sagarrondo gehiago landatu beharko da...

Eta lehenbailehen. Mugimendu handiak ari dira gertatzen orain. Dirulaguntzak aktibatu egin dira eta jendea sagastiak jartzen hasi da. Plan orokor baten barruan sartzen da hau guzti hau. Lehen sektorea

behintzat, martxan jarri du. Hemengo sagarra, kalitatezko sagarra behar dugulako sagardoa egiteko.

Sagastien kontrola ere areagotu egingo da, ezta?

Hala da. Sagasti asko dago hemen, baina profesionalizatutakoa ez hainbeste. Eta hori behar da, dauden sagastiak profesionalizatzen joatea. Eta horrez gain, sagasti berriak jartzea. Hasi dira jada, baina beste 300 bat hektarea gehiago beharko dira oraindik.

Sagardo botilaren prezioa baxua dela diote sagardogile batzuek. Prezio minimo bat ezarri beharko litzatekeela uste dute. Jatorri izendapenaren baitan, landu al duzue gai hori?

Sagardoaren sektorea duindu egin behar da: itxuran, kalitatean eta prezioan. Bestela ez genuke sektorearen gainontzeko kate guztietan eragiteko ahalmenik izango. Ez dut uste jatorri deituraren apustua izan behar duenik, sektore osoarena baizik. Denon artean ahalegin handi bat egin beharko dugu produktuari duintasun bat emateko. Zezen horri ere heldu egin beharko diogu.

KALITATEZKO BI ZIGILU:

Hemendik aurrera, kalitate-bermea izango duten bi zigilu publiko eta ofizial egongo dira merkatuan:



- **Euskal Sagardoa:** Bertako sagarra bakarrik erabiliz egindako sagardoa, eta kalitate-bermea duena. Eusko Label sagardoaren lekukoa hartuko du. Kontseilu Arautzaileak kudeatuko du marka eta bertan sagargile zein sagardogile sektoreak eta administrazioek izango dute ordezkariak.
- **Gorenak:** Bertan egina han-hemengo sagarrak erabiliz, eta kalitate-bermea duena. Lehen dozena inguru sagardotegiek erabili zezaketena, orain publikoa izango da; hau da, baldintzak betetzen dituzten sagardogile guztiek baliatu ahal izango dute.

Euskal Sagardoa zein Gorenak marken kalitatea bermatzeko, HAZI Fundazioak ziurtatuko du prozesua. Botila-lote guztiguztiak pasa behar dituzte kalitate-kontrolak.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Sexu abusuak

Izenburu labur honek ez du azalpen askorik behar zertaz ari garen konturatzeko; hots, asteotan Gipuzkoa osoan pil-pilean dabilen berriaz, hain zuzen. Mendizabal apaizaren aurka, sexu abusuak direla eta, jarri duten salaketa edota egin dizkioten salaketak. Jakin badaikit kontuz ibiltzeko gaia dela eta saiatuko naiz errespetuz tratatzen. Uste dut edozein hiritarrek bezala garrantzitsua dela beste edozein gairi buruz bezala hausnarketa egitea.

Komunikabideek luze eta zabal idatzi dute. Nabarmenduko nuke Berria egunkarian agerturiko gazte haren testigantza. Argazkia ere halakoxea da: Elizaren aurrean mutil gazte bat.

Ez du erreparorik gertatutakoa zehatz-mehatz kontatzeko. Honen aurretik badirudi beste bi gaztek adierazi zutela apaiz beraren sexu abusuak jasan zituztela. Lehenengo bi gazteen salaketa eta hirugarrenaren bitartean badirudi Gotzaindegiak gertaerak isildu eta ezkutatu egin zituela eta apaizari ezarritako neurri batzuekin Mendizabalek bere lanean jarraitu zuela. Dena ilun samarra, hirugarren lekukoa agertu eta jendaurrean aritu zen arte. Gotzaindegiak Estatuarekiko bere pribilegioak erabiliz dena ezkutuan eta bere aldetik eman nahi izan du gizartean, justiziarik ez balego bezala.

Azken orduan, eta hirugarren testigantzak behartuta, datuak Fiskaltzari eskaintzeko prest agertu da. Ez naiz Unibertso horretakoa, elizakoa alegia, eta gertaera gizarte zibileko edozein kidek egin dezakeen arabera egin nahi dut: errespetuz, baina kontuak argi eta garbi eskatuz.

Harrigarria egin zait zenbait klerikodek eta lagunek idatzi dutena. Askok komunikabideei bota diote errua, alegia, morboa bilatzen dutela eta gisa horretako topikoak zabalduz. Beste zenbaitek Ebanjelioetara ere jo dute baina aipamenak bere modura erabiliz, ahaztuta, noski, Ebanjelioak haurrekiko sexu abusuak buruz dioena.

Gertakaria, nire irudiko, giza eskubideen urraketan kokatu behar da. Haurrak ere badituztelako gizarteak onarturiko eskubideak. Eta kasu honetan garbi dago gaztetxo horiek sexu harreman horietara behartu zituztela, sexu hitza zentzu zabalean onartuta. Badago beste elementu bat ere: apaiz horrek gaztetxo horiek egoera horretara eramateko erabili duen boterea. Beraz, ozen aldarrikatu behar da sexu abusuak jasan dituzten gaztetxo horiek—gaur jada pertsona helduak—biktimak direla, eta, biktima oro bezala oroimena, errekonozimendua, justizia eta erreparazioa behar dituztela, ezen horiek lortu ondoren berreskuratu baitute beren duintasuna. Halaber, modu horre-

Hainbeste aldiz aipatzen den Eliza eta Estatuaren arteko banaketa, kasu honetan "praxian" ezkontide gisa jarraitzen dute

tan urteetan eraman duten zama astun horretatik askatuko dira.

Hainbeste aldiz aipatzen den Eliza eta Estatuaren arteko banaketa, kasu honetan praxian ezkontide gisa jarraitzen dute. Eta horrek ez du inondik ere justiziaren lana errazten. Elizak eduki dezake bere bide juridikoa, baina horrez gain elizgizonen bere erantzukizun zibila dituzte. Ez dakit zertan geratuko diren errekonozimendua, justizia eta erreparazioa; susmoa dut ez ote den elizbarrutian geratuko. Eta ez dut esan nahi errukia, barkamena eta horiek denak landu behar ez direnik; baina oinarri-oinarrian justizia dago, eta horren ondoren beste guztia. Sentimendu horiek ere ez baitira elizaren monopolioa, gizaki guztion barne sentimenduen parte baizik.

Horrez gain, justizia egin ondoren erasotzaileak beharko du laguntza psikologikoa eta tratu egoki bat. Errudun guztiek bezalaxe. Ezin zaizkio edozein presori zor zaizkion eskubideak ukatu.

Biktimen larruan sartu beharra dago; bestalde. Beste erabateko biktima garenok ondotox dakigu zer sentitzen den errekonozimendua, justizia eta errekonozimendua lortzen denean.

Honen ildotik, bestalde, eztabaidatan elizgizonen zelibatoari buruz hitz egin da. Joan zen ostiral ilunabarrean ETB2n gai honi buruz eztabaidatu zen. Eztabaidaren hasieran, psikologo batek hitz egin zuen. Eta, nahiz eta zelibatoa ez zuen sexu abusetako kausa gisa planteatzen, zelibatoa jokabide sexual horiek garatzeko arrazoietakoa izan zitekeela aditzera eman zuen.

Ezin gaitezke zelibatoa ala ezkontza dikotomia horretan jarri. Sexualitateak forma asko ditu. Sexualitatearen helburua ez da soilik ugaltzea. Hori izan da eta da Elizaren dotrina; baina sexualitatea gizakiok dugun energia da eta nork bere erara bideratu dezake energia hori. Zelibatoak, nolabait, pertsona kastratu egiten du, despersonalizatu eta errepresio horrek desbideratzeak erraz ditzake. Eztabaidak elizaren egitura eta honek sexualitateaz duen iritzia aldatzea eskatzen du. Elizaren gauza da eta hari dagokio konponbidea aurkitzea. Gizarte zibileko kide garenok sexu abusuak bezalako desbideratzeak salatu eta aztertzea dagokigu, eta horretan saiatu naiz. "Oroimena, errekonozimendua, justizia eta erreparazioa".

HITZ-GEZIDUNAK

* Boxeolari urnietarra

	IZENA	Harribixi mota	Lajaz irauli
	Sokazko eskala	Bidalia, botea	Koska
Dokumentu mota			
Inuzentea			
Lelo	Berandukoa	Soinaren adar	Galdetegi mota
* DEITURA	Arraunaren euskarri		Ezgauza
			Errepikatuz, txori mota
			Metal alkalino
Landareen sexu arra			
Hizketagai			Toka, zaizu
			Kontso-nantea
			Euskal sindikatua
Italiako hiria			Infusio mota
Elektrizitate unitate			Bromoa
		Oinez abiatu	
		Kontso-nantea	
Nitrogenoa	Pluralean, intsektu bizkarroia		

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere.

		5	9					
3	4	6				8		9
					8			
				7		1	3	
7	3						9	5
	5	9		6				
			4					
8		4				2	7	3
					6	4		

5 X 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

1				
2				
3				
4				
5				

1. Goxoki, poliki.
2. Altzo. 3. Bururatua, gauzatua. 4. Abesti.
5. Bizitasunik gabe, ahul.

GOITIK BEHERA

Goitik eta beheetik letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

1. Gaizkile. 2. Ertza, kantoia. 3. Zn ikurra duen metala.
4. Ohorezko hitz ematea. 5. Ekialdean, naiz. 6. Zein unetan? 7. Zopin, arnas hartze hertsatu. 8. Itsasontzia. 9. Ona.

ERANTZUNAK

5	9	3	7	2	6	4	8	1
8	6	4	1	9	5	2	7	3
1	7	2	4	8	3	9	5	6
4	5	9	3	6	1	7	2	8
7	3	1	8	4	2	6	9	5
6	2	8	5	7	9	1	3	4
9	1	7	6	3	8	5	4	2
3	4	6	2	5	7	8	1	9
2	8	5	9	1	4	3	6	7

I	L	A	N	I
K	A	N	T	U
E	A	G	I	N
A	B	A	G	I
M	A	G	A	L
E	M	E	K	I

Notiz. Zofin. Ontzia. Zintzoa. Niz. Gaizkin. Izkina. Zinka. Zina. Niz.

L	A	I	A	T	U	Z	A	I	K
O	K	R	O	S	K				
E	N	G	I	Z	L	A	T	E	L
I	A	B	A	G	I	S	G	A	I
A	B	I	N	Z	E	Z	O	A	I
E	S	T	E	B	E	Z	L	O	R
E	S	L	O	R	E	Z	I	L	A
S	O	L	A	S	G	A	I	B	I
E	S	T	E	B	E	Z	L	O	R
S	O	L	A	S	G	A	I	B	I
E	S	T	E	B	E	Z	L	O	R
S	O	L	A	S	G	A	I	B	I



KIROL ALBISTEAK

Denboraldi hasiera Mikel Iturriarentzat

Astelehen arratsaldean "Euskadi Basque Country – Murias Taldea" profesional mailako euskal txirrindulari taldeak 2017rako aurkezpen ofiziala egin zuen Bilbo-ko Azkuna zentroan, euskal txirrindularitzaren historian garrantzitsuen izan diren kirolariak alboan zituztela. Euskal instituzioetako eta enpresa munduko ordezkariak ere bertaratu ziren ekitaldira.

Aurkezpen ekitaldian **Jon Odriozola** proiektuaren zuzendariak "txirrindularitza talde bat baino askoz ere gehiago" dela nabarmendu zuen eta etorkizunean egitasmo handiagoa sortzeko "pauso bat" besterik ez dela falta adierazi zuen. "Ziur gaude proiektu hau lasterketa onenetan izan behar dela eta Euskadiren ize-na munduan zehar eraman nahi dugu", adierazi zuen.

Ekitaldian taldearen maillot berria ere eman zen ezagutzera. Euskadi Basque Country Murias Taldeak aste honetan hasi du 2017ko denboraldia, Mallorca-ko Challengean.

Eskualdeko txirrinduzaleak pozik egon daitezke, aurtengoa ere **Mikel Iturria** urnietarrak profesional mailako tropelean parte hartu ahal izango duela. Andoingo txirrindulari es-



Mikel ITURRIA

kolan trebatu eta gero Euskadi fundazioan eta Murias taldean jarraipena eman dio profesional mailako txirrindularitzari.

Aurkezpen ekitaldian, gonbidatuen artean, txirrindulari-

tza munduko hainbat ordezkari izan ziren, hala nola, **Pedro Delgado, Abraham Olano, Joseba Beloki, Julian Gorospe, Roberto Laiseka** edota **Beñat Intxausti**.

Izotza eta elurra Zanpatuz taldearen lehen irteeran



© Maximo Manso

Aurreko larunbat goizean urteko mendi irteerei hasiera eman zieten Zanpatuz mendi elkar-teko kideek. Gogotsu daudela dirudi, negua bete-betean dela

49 lagun abiatu baitziren Urnietatik Leitza aldera. Dezenteko izotzarekin topo egin zuten bidean zehar, baita elurra-ekin ere Abadegurutetik Lei-

tzalarerraino. Inauteriak ospatzen ari ziren Leitza eta hori dela eta urnietar mendizale batzuren egonaldia ia-ia biharamunera arte luzatu zen.

UKeren garaipen bikoitza

LEGAZPI 26-29 URNIETA

Senior mutilak. Garaipenarekin hasi dute lehen itzulia senior mutilek, eta horri esker sailkapenaren lehen postuetan darraite. Legazpikoa ez da joko zelai erraza. Partidaren lehen ordu erdian urnietarrek defentsan erraztasun gehiegi eskaini zizkieten legazpiarrei. Hori gutxi ez eta erasoan egindako akatsak direla medio, aurkari- kontraerasoak ahalbidetu zituzten. Joko trakets horrekin atsedenaldira 17-14 markagailuarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian defentsan jokoak moldatu eta bi piboterekin jokatzeko hasi ziren. Partidaren 50. minutuan urnietarrek partida lehenengo aldiz berdintzea lortu zuten eta gutxira markagailuan aurrea hartu zuten, amaieraraino. Sufritutako garaipena.

URNIETA 25-19 EGIBIDE

Senior neskak. Gogotik egin behar izan zuten lan garaipena eskuratzeko, 2017ko lehenengo partida ofizialean. Partida oso trabatua izan zen hasieran, akats eta baloi galera ugariarekin. Lehen hamabost minutuetan markagailuan hiru goleko berdinketa agertzea horren erakusgarri da.

Defentsan baloia maisuki berreskuratuz eta kontraeraso bidez lortutako gol bati esker, Urnietak lehen aldiz aurrea hartu zuen (10-9). Bigarren zatian UKekoek defentsan hobetu eta horri esker hainbat baloi berreskuratuz zituzten. 5-6 goleko errenta eskuratu ostean, etxekoek norgehiagoka amaieraraino ondo baino hobeto kontrolatu zuten.

Leizaran eta Urnieta ligako lehen postuetan

SENIOR MUTILAK:

Leizaran 30-19 Soraluze

Legazpi 26-29 Urnieta

13. jardunaldia, asteburuan:

Saieko-Leizaran. Lar, .

Urnieta-Egia. Lar, 19:00.

SAILKAPENA. 12. jardunaldia:

1. Ordizia 24

2. Leizaran 16

3. Urnieta 16

SENIOR NESKAK:

Aiala B 20-20 Leizaran

Urnieta 25-19 Egibide

13. jardunaldia, asteburuan:

Leizaran- Urnieta

Lar,

SAILKAPENA. 12. jardunaldia:

1. Errotaberri 22

4. Leizaran 13

7. Urnieta 12

Erregional mailako futbola

17. JARDUNALDIA. Emaizak:

Urnieta 4-0 Behobia

Astigarraga 2-0 Euskalduna

18. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Euskalduna-Allerru. Lar, 17:45.

Roteta-Urnieta. Lar, 17:30.

SAILKAPENA. 17. jardunaldia:

1. Trintxerpe 37

6. Euskalduna 27

10. Urnieta 19

EMAKUMEZKOAK

16. JARDUNALDIA. Emaizak:

Santo Tomas 0-2 Urnieta

17. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Urnieta-Intxaurdi. Lar, 15:30.

SAILKAPENA. 16. jardunaldia:

1. Touring 34

2. Ordizia 34

3. Otsadar 32

4. Urnieta 29

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 57-60 Añorga

Ganbara 44-39 Axular KadM

Asteburuko partidak:

Ganbara KadM-Erroibide

Larunbata, 28. 09:00. Allurralde.

ZAST-Ganbara SenM

Larunbata, 28. 20:00. Zarautz.

Sailkapena, senior maila:

1. ZAST Zarautz 24

2. Azkune 23

10. Ganbara 19

Sailkapena, kadete maila:

1. Irun 21

2. Mugertza 21

3. Orio 21

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urrietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus. www.aiurri.eus. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urrieta), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URTARRILAREN 26TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain, Bastero**
- **"Comancheria"**
Urtarrilak 29. 19:30.
Urtarrilak 30. 19:30-22:00.
 - **"Ribbit"**
Urtarrilak 29. 17:00.

Magia

- Urrieta**
- **Eriz magoa**
17:30 Sarobe. 3,5 euro.
Urtarrilak 29, igandea.

Lehiaketak


- Andoain, Bastero**
- **"Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna - 2017"**
iragartzeko kartel lehiaketa zabalik da. Andoain, Aduna, Asteasu, Villabona, Larrail eta Zizurkilgo 16 urtetik gorako pertsona orok parte har dezake. Sari bakarra: 350 euro. Lanak aurkezteko epea: Otsailak 3, ostirala.
 - **Maskara lehiaketa.** Gaia libre da eta edozein materialekin aurkez daiteke. Mailak: 8-9, 10-11 eta 12-14 urte. Lanak aurkezteko eguna: 17:00-19:00. Otsailak 21, asteartea. Sari banaketa ekitaldia: 18:00 Urigain. Otsailak 23, osteguna.

Farmaziak

- Andoain**
- **Gorospe.**
Gauzez: **Etxebeste.**
Urtarrilak 28, larunbata.
 - **Gorospe.**
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 29, igandea.

Urrieta

- **Urrutia** (Hernani).
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 28, larunbata.
- **Urrutia** (Hernani).
Gauzez: **Etxebeste** (Hernani).
Urtarrilak 29, larunbata.



Antzerkia

- Andoain**
- **"Lu eta Le"**, antzerkia euskaraz. Lurdes Iriondo eta Xabier Leteren unibertsoa antzerkiera eramana. Ramon Agirre, Joseba Apolaza eta Klara Mendizabal. 20:00 Bastero. Urtarrilak 28, larunbata.

Urrieta

- **"Por los pelos"**.
19:30 Sarobe. 3 euro.
Otsailak 5, igandea.

Musika

- Andoain, Gaztetxea**
- **Kokein** eta **Eraso!** taldeak zuzenean arituko dira. 22:00 Urtarrilak 27, ostirala.
 - **Isuo** eta **Kezman** musikariaren emanaldi akustikoa. 18:30 Otsailak 5, igandea.

Dantza

- Andoain, Bastero**
- **"Nagare"** dantza eta ikusentzuzkoa Circle of trust eta Logela multimedien eskutik. 21:30 Auditorioa. 10 euro. Otsailak 10, ostirala.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- **"Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa"**. Astelehenetik ostiralera, ohiko ordutegian. Erakusketa gela. Otsailaren 16ra arte.

Jaialdia

- Andoain, Bastero**
- **Piano Jaialdiaren** atarikoak astekarian, 5. orrialdean: **Urtarrilak 30, astelehena:** Oroith abesbatza 20:00 Ekitaldi aretoa. **Urtarrilak 31, asteartea:** Mikel Urdangarin Castro eta biolin-jolea eta Carlos Rubio Amondarain perkusio-jolea. 19:00 Ekitaldi aretoa. **Otsailak 1, asteazkena:** Jazz estiloko inprobisazioak Imanol Iribarren Garcia eta beste hainbat musikarirekin batera. 19:00 Ekitaldi aretoa. **Otsailak 4 eta 5:** Euskal Herri osoko piano jotzaileen bilkura.

Batzarrak

- Andoain**
- Udalaren osoko ohiko batzaraldia. 2017ko urteko aurrekontua eztabaidagai izango da. 19:00 Udaletxea. Urtarrilak 26, osteguna.
- Urrieta**
- Udalaren osoko ohiko batzaraldia. 19:00 Udaletxea. Urtarrilak 31, asteartea.
 - **Denda Berri** elkartearen ohiko **batzar orokorra.** 17:30 Denda Berri. Otsailak 4, larunbata.

Korrika


- Urrieta**
- Batzordearen bilera 12:00 Lekaio. Urtarrilak 27, ostirala.

Santa eskea

- Andoain, Urrieta**
- Entseguen informazioa astekarian, 4. orrialdean. 18:00 Andoain, Dr.Huitzi. 17:00 Urrieta, plaza. Otsailak 4 larunbata.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Amaia Errazkin
Ezeizak urtarrilaren 27an 20 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuasko amona Miren eta aitona Esteban partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Axa
Urtarrilaren 24an 6 urte bete ditu. Muxu potoloak etxeko-enpartetik! Egundat bat lehenago aitona Antoniok ere urteak betetzituen.

ANDOAIN


ZORIONAK



Elaia Lizasok
urte bat beteko du datorren urtarrilaren 28an. Muxu pila-pilagure sorgintxoarentzat, aitona, amona, izeba eta osaba.

URNIETA

ZORIONAK



Etxeko guapoenak
12 urte bete ditu urtarrilaren 23an. Zorionak **Aiheko!** muxu handi bat gurasoen eta Unaxen partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Datorren urtarrilaren 28an, **Juner** en 6. urte-betetzea ospatuko dugu. Zorionak eta muxu pilloa!

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN



Oso erraza da, eta dohainik. Azkar batean bidal daiteke. diseinua@aiurri.eus
Whatsappa: 619 163 537

Temperatura baxuak urtarrilaren 18tik 24ra



Urtea hasi denetik merkurioa zero azpitik izan da eskualdean, hainbat egunetan. Jonathan Lopez (@urnietameteo) eta Imanol Fernandez (@meteandoain) eguraldi zaleek aurreko egunetako tenperatura baxuena, altuena eta batz bestekoa bildu zituzten:

URNIETA

Urrieta	-	+	=
Urtarrilak 18	-2,6	1	-0,8
Urtarrilak 19	-1	4,9	1,9
Urtarrilak 20	-3,1	6,5	1,7
Urtarrilak 21	-0,9	11,3	5,2
Urtarrilak 22	0	9,2	4,6
Urtarrilak 23	0,8	10,1	5,4
Urtarrilak 24	1,7	10,2	5,9

ANDOAIN, OLAZAR PARKEA

Andoain	-	+	=
Urtarrilak 18	-2,8	0,8	-1
Urtarrilak 19	-2,2	4,1	1
Urtarrilak 20	-3,6	6,2	1,3
Urtarrilak 21	-2,1	11,5	4,7
Urtarrilak 22	-1,6	9,4	3,9
Urtarrilak 23	-0,2	10	4,9
Urtarrilak 24	-0,5	10,1	4,8

ANDOAIN, PLAZAOLA KALEA

Andoain	-	+	=
Urtarrilak 18	-2,6	0,2	-1,2
Urtarrilak 19	-1,6	3,9	1,2
Urtarrilak 20	-3,2	6	1,4
Urtarrilak 21	-1,5	11,1	4,8
Urtarrilak 22	-1,3	9,1	3,9
Urtarrilak 23	0,5	9,5	5
Urtarrilak 24	0,1	9,8	5

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: OTSAILAK 2, OSTEGUNA